



Камерадун gizona (Человек с киноаппаратом),
Dziga Vertov, 1929.

ARTE ETA TEKNOLOGIA: IKUS-ENTZUNEZKOAK

Egilea:
Aida Vallejo Vallejo
UPV/EHU



AURKEZPENA:

“Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak” izeneko kurtsoaren atal bat sortzen dute testu hauek.

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) argitaratu ditu OCW (Open Course Ware) proiektuaren barne.

Kurtso osoa ikusteko, bilatu web-gune honetan: ocw.ehu.es, 6. zk. (2013 urtean), “Giza Zientziak” (“Arte y Humanidades”) atalean .

Nola aipatu:

Vallejo, Aida (2013) “Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak”, OCW UPV/EHU-an, 6.zk. <http://ocw.ehu.es> (Lizentzia Creative Commons: BY-NC-SA)

Egile eskubideei buruzko argibideak:

Lan hau Creative Commons lizentziapean argitaratuta dago. Horregatik erabiltzaileak kopiatzeko, banatzeko eta komunikatzeko baimena dauka honako baldintza hauek betetzen badira: egilea aipatu, helburu komertzialetarako ez erabili, eta jatorrizko materiala edo egokitutako materiala berriro argitaratzen baditu, hauek libreki lizentzia berdinpean eskaini.

Lan honetan erabilitako irudi gehienak Creative Commons lizentziapean argitaratuta daude. Jatorrizko web-gunea ikusteko, klikatu irudiaren alboko gezia.

Beste kasuetan, irudien autoreak aipatzen dira, Jabetza Intelektualaren legeak betez.

Praktika 2: IRUDI MUGIKORRAK (bideoak)

- 12 bideo grabatu arau hauek jarraituz:
 - Enkoadraketa geldirik utziz, 5 bideo grabatu (tripode bat erabili edo euskarri egonkorrean utzi kamera).
 - Plano-mota desberdinak erabili (diapositibetan azaldutakoak: orokorra, zehatza, etab.).
 - Koadro barruan mugimenduak bilatu (objektuak edo pertsonaiak eskuinetara /ezkerretara / aurrera / atzera mugi daitezzen).
 - Beste 5 bideo grabatu, enkoadraketa mugikorra erabiliz (kamera eskuz eraman/edo tripodean utzi eta mugitu norabide batera). Diapositibetan agertzen diren kamera-mugimenduen artean, hautatu 5 (panoramika, travelling, etab.)
 - Beste 2 bideo grabatu, kameraren leiarrek sortutako mugimendua erabiliz (zoom edo "flou" artistikoa).
- Artxiboen izenak aldatu informazio hau gehituz: data, izen-abizenak, praktika zenbakia, plano/mugimendu-mota eta irudiaren edukiak. Adibidea:
13.02.15_abizenaizena_02_bideo_panoramicahorizontal_gizonp arke
- Pen-drive edo disko batean gorde artxiboak.
- Testu bat egin, informazio hau gehituz (orrialde bakarrean bideo baten azalpena):
 - Plano-mota / kamera edo leiarren mugimendua. Azaldu zergatik den mota hori (diapositibak irakurri).
 - Azaldu nola grabatu duzun eta zein izan den transmititu nahi izan duzun ideia.
 - Fitxa teknikoa informazio hau gehituz: artxiboaren izena, fitxategi-luzapena (.avi, .mov), tamaina (kb), bereizmena, formatua (4:3 edo 16:9), erabili duzun kamera.
- Testua pdf-ra bihurtu. Data, izen-abizenak eta praktika zenbakia gehitu testu-artxiboaren izenean. → *Adibidea: 2013.02.15_abizenaizena_02_bideo*

BEHARREZKO MATERIALA:

- Argazki-kamera edo bideo-kamera digitala.
- Pen-drive, edo gordetzeko beste euskarria.
- LibreOffice programa (testua pdf-ra bihurtzeko).